

Jantoki zerbitzua

Dakizuen bezala, ikastolako jantoki zerbitzuak bi atal ditu: jantokiko zerbitzua bera eta, arratsaldeko klase garaia iritsi bitartean, begirale-arduradun batzuen ardurapean zaintza zerbitzua.

Ikasleen Eskubideen eta Bete Beharren Araudia jarraituz, adin gutxiko ikasleek ikastolako eremuan egon behar dute. Gurasoen/tutoreen baimen sinatua ekartzen badute bakarrik irten daitezke.

Beraz, ikastolak duen ardura modu egokian betetzeko helburuarekin, zuen semeak edo alabak bazkaldu ondoren ikastolako eremutik atera behar badu, baimen sinatua behar dugu. Idatzi horretan jasotzen dugu: data, zergatia, ordua eta gurasoaren edo tutorearen sinadura.

IKASTOLAKO JANTOKIAN BAZKALDU ONDOREN ikaslea ikastolako eremutik ateratzeko baimen inprimakia
--

Ikasturtea

Ikaslearen izen-abizenak

Maila

Baimentzen den/diren eguna(k)

Zein ordutan ateratzeko baimena du

Zergatia

Egun eta ordu horretan/horietan nik, (erantzulearen izen-abizenak), nire gain, hartzen dut nire semearekiko edo alabarekiko erantzukizun guztia.

Eskaera data:

Erantzulearen sinadura:

